

KRITIKA MUSIKA

Joseba Martin

EGUNKARIA
The Fuzztones taldea.Alferrikako ahalegin
lisergikoak

The Fuzztones

Lekua: Bilboko Kafe Antzokia.

Eguna: Otsailak 19.

Jende kopurua: 350 lagun.

Gaizki hasi ziren Los Angelesko musikariak: berandu heldu ziren aretora, berandu amaitu zuten proba —azkenik lortutako soinua ez zen onena, nolabait esateko—, 40 minutu berandu hasi ziren, eta bizpahiru aldiz gelditu behar zuten ekitaldia, baxuaren kable bat oso ongi ez zebilelako.

Oso ezagunak dira The Fuzztones gure artean, eta badakigu, behin hasiz gero, gelditzerik ez dagoela. Garage, psikodelia, rock lisergikoa, punk-rock... estilo horiek guztiak eskaintzeko jo eta ke ibili behar da, bestela...

Zenbait gorabehera izan ondoren, The Fuzztones bidean daude berrir: bost lagun, beti bezala; oraingon, gainera, bi emakumerekin —baterian eta teklaturtan; gainera, jatorrizko Deb O'Nair—.

Hasteko, antzinako psikodeliaren klasiko batez baliatu ziren —The Sonics-en *Strychnine*—, eta beste antzinako pieza batekin jarraitu zuten —The Haunted bandaren *1-2-5*—. Soinua gogorra eta sendoa zen, baina melodia ez zen desagertzen. Dena dela, Rudy Protrudiren ahots nagusia ez zen ongi entzuten, bateriak, organoak eta gitarrak estalita. Jendeak animatu nahi zuen, baina

gehienetan bide erdian geratu zen.

Astelehenak, egun txarrak

Taldeak antzinako kantuek berreskuratu zituen —*My flash on you, Brand new man, Bad news travels fast* kutsagarria...—; nola edo hala, garrantzi handiagoa eman zioten azken urteotako kantuei —*I never knew, Charlotte's remains, Don't blow mind, Face of time, Group grove*...—. *Be forwarded* kantuan Rudy jendearen artean abiatu zen, eta emakume bat besarkatu zuen ilunpean —emakumea geldi-geldi geratu zen—, taldeak bere lanari ekiten zion bitartean. Baliabide ugari bildu du Protrudik hogeitau urte hauetan: antzezpenak, keinuak, itxurak, baina batzuetan sinesteari utzi diola ematen du.

Ekitaldia azken atalean animatu zen, batez ere *Black lightning' light* pieza luzean. Horrekin agur esan ziguten. Jendeak gehiago nahi zuen eta, oso ziur egon gabe, txistuka bandaren itzulera eskatu zuen: ordubete baino ez zen luzatua kontzertua. Azkenean bueltatu ziren, beste hiru kantu jotzeko. Baina beraien ere ez zeuden oso ziur bete beharreko lan horretaz. Kontzertu hobeak eskaini dizkigute Los Angelesko musikariek, zalantzarik gabe. Gainera, badakigu astelehenak ez direla rock jarraitzaileen egun faboritoak; ezta, dirudienek, rock taldeenak ere.

ZINEMA. 'Judgement at Nuremberg' du lanik enblematikoena

Stanley Kramer zinemagile
eta film ekoizlea hil da

Aktore ospetsuak zuzendu zituen; Cary Grant eta Gregory Peck, kasu

Agentziak | LOS ANGELES


Stanley Kramer estatubatuar zinema zuzendari eta ekoizlea astelehenean hil zen, 87 urte zituela, pneumonia baten ondorioz, Kaliforniako erietxe batean. Berria, haatik, atzo zabaldu zen. Haren emazteak azaldu zuenez, astelehen goizean ongi esnatu zen Kramer, baina gero okerrera egin zuen.

Zuzendari moduan, oso aktore ospetsuak izan zituen bere agindura Kramerrek: Cary Grant, Sophia Loren, Tony Curtis, Sidney Poitier, Gregory Peck, Ava Gardner, Fred Astaire, Spencer Tracy, Burt Lancaster, Richard Widmark, Marlene Dietrich, Vivien Leigh, Katherine Hepburn, Anthony Quinn, Gene Hackman eta Dick Van Dyke, esaterako.

New Yorken jaio zen Stanley Kramer, 1913ko irailaren 19an, judu familia batean. Hainbat askekaritan lan egin ondoren, gidolari moduan hasi zen lanean, eta urtebeteren buruan Metro Goldwyn Mayer konpainiako estudio nagusietan hasi zen lanean, muntaketa zerbitzuan.

Bigarren Mundu Gerraren garaian soldaduentzako film didaktikoak zuzendu zituen Kramerrek, eta 40ko hamarkadaren hasieran ekoizle lanari lotu zitzaion, Albert Lewin eta David L. Loew-rekin batera. John Erich Maria Remarqueren *So ends our night* filmean egin zituen lehen aldiz ekoizle lanak.

1947an Screen Plays Corporation In. konpainia sortu zuen Kramerrek, eta 1948an film bat ekoiztu zuen bakarrean lehen aldiz: Richard Fleischerren *So this is New York*. Filmak izandako porrotak ez zuen Kramer beldurtu, eta 1949an beste konpainia bat sortu zuen: Stanley Kramer Production Pictures. Sam Katz izan zuen laguntzaile 1950etik aurrera enpresa horretan.

EGUNKARIA
Stanley Kramer, 1965ean Parisen egindako argazki batean.

FILMOGRAFIA

Ekoizle gisa

- *So this is New York* (1948)
- *Home of the Brave* (1949)
- *The men* (1950)
- *Death of a salesman* (1951)
- *High noon* (1952)
- *The juggler* (1953)
- *5.000 fingers of Dr. T* (1953)
- *The Caine mutiny* (1954)
- *The wild one* (1954)

Zuzendari gisa

- *Not as a stranger* (1955)
- *The defiant ones* (1958)
- *Judgement at Nuremberg* (1961)
- *It's a mad mad mad mad world* (1963)
- *Ship of fools* (1965)
- *Guess who's coming to diner* (1967)
- *The secret of Santa Vittoria* (1969)

Columbiako ekoizle lehenik,
zuzendari gero

1952an Columbiak kontratatu zuen Stanley Kramer, Carl Foremanen gidioan oinarrituriko *High noon* filma ekoiztu zezan, Fred Zinnemanek zuzendu zuen film hura. Beste film askoren ekoizpenean parte hartu zuen ondorengo urteetan.

Zuzendari gisa 1955ean egin zuen lehen aldiz lan. *Not as a stranger* zuzendu zuen urte horretan. Olivia de Havilland, Robert Mitchum eta Frank Sinatra ziren filmeko aktoreetako batzuk. Ondorengo urteetan zuzenduko zituen bere lanik ezagun eta enblematikoena: *Judgement at Nuremberg* 1961ean eta *It's a mad mad mad mad world* 1963an.

Bi bider ezkondu zen, eta bi aldietan aktorea hartu zuen emazte: Anne Pearce 1964an, eta Karen Sharpe 1966an.

IRAGARKI MERKEAK 943 300 222

AISIALDIRAKO ZUZENDARI ETA
BEGIRALEAK BEHAR DITUGU

INTERESATUAK CURRICULUMA BIDALI
HURRENGO HELBIDERA:
AISE BEGIRALEAK 232 POSTAKUTXA.
01080 GASTEIZ
E-MAIL aise@euskalnet.net
Argibideak 609494301

ENKOFRATZAILE
TALDE BAT BEHAR DA

INTERESATUAK DEITU
627441900 TLFONORA